

MOZIO ARRUNTA

DONOSTIAKO OSASUN ETXEETAKO PEDIATRIA ZERBITZUETAKO EUSKARAZKO ARRETA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostiako osasun etxeetako pediatria zerbitzuetako euskarazko arreta dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Amara Berri auzo elkarteko kideek salatu dutenez, auzoko hainbat familiaren kexak jaso dituzte auzoko osasun etxean ez dagoelako pediatria euskaldunik. Familia horien eskaria Osakidetzari ere helarazi diote, eta gure udal taldearekin harremanetan jarri dira Udalak ere esku har dezan eskatzeko.

EH Bilduk jakin duenez, antzeko egoerak gertatzen dira hiriko beste hainbat osasun etxetan: Altzan, bi pediatretako batek ez du aski gaitasunik euskaraz, eta gaztelaniaz artatzen ditu haurrak; Bidebietan pediatria bakarra dago eta ez da euskalduna (erizaina euskalduna da); esan digute Loiolan eta Alde Zaharrea ez dutela euskaraz artatzen...

Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II. planean (2013-2019) jasotzen denez, *bigarren plangintzaldian Lehen Mailako Arretako erakunde guztiek familia mediku, pediatria edo emagin euskalduna hautatzeko aukera emango diete erabiltzaileei. Erakunde bakoitzak euren paziente multzoari eskaintza hori jakinarazteko erabil ditzakeen bitartekoez gain, aurrerantzean bai paziente berriak inskribatzean bai medikua aldatzeko eskabideetan herritar guztiei galdetuko zaie familia mediku, pediatria edo emagin euskaldunik nahi duten (2.2.b).*

Era berean, Lehen Mailako Arretako zerbitzu erakunde guztiek erabiltzaileei galdetuko diete ea beraien datu pertsonalei lehentasunezko hizkuntza eranstea nahi duten. Lehentasunezko hizkuntzak, nagusiki, ahozko harremanei eta telefono mugikorretan pazienteek jasotzen dituzten mezuei egiten die erreferentzia (2.3.a). Paziente batek lehentasunezko hizkuntza euskara duela adierazi eta gero, zerbitzu erakundeak, betiere zerbitzu elebidunen eskaintzak eta profesionalen kupoek hala ahalbidetzen badute, aukera eman beharko dio familia mediku, pediatria, emagin edo bestelako profesional euskalduna hautatzeko. Gainera, ospitaleetako euskarazko espezialitateen eskaintza kontuan hartuta, euskara lehenesten duten pazienteei profesional euskalduna eskainiko zaie bai Lehen Mailako Arretako zentrotik espezialitate mediko batera bideratuak izaten direnean bai pazienteak bera ospitalera zuzenean joaten denean (2.3.f)

Gainera, 67/2003 Dekretuko 4. artikulua jasotzen duenez, Osakidetzako euskararen normalizazio prozesuan Lehen Mailako Arretak lehena izan behar du lehentasun hurrenkeran. Koadro honetan zehaztuta dagoenaren arabera, Donostiako osasun etxeetako pediatria zerbitzuek lehen mailako lehentasun espezifikoak dute, eta lanpostuen % 80k euskara eskakizunaren derrigortasun data izan behar dute (Donostian % 46 euskaldunak eta %19 ia-euskaldunak -2016-).

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

UNITATEAK	EREMUAK, LEHENTASUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATAK							
	100-71*		70-46*		45-21*		20-0*	
	L**	DD%***	L**	DD%***	L**	DD%***	L**	DD%***
Harrera, onarpen eta informazioko unitateak	I	100	I	100	I	100	I	100
Pediatria	I	80	I	80	II	60	II	40
Haur Erizaintza	I	80	I	80	II	60	II	40
Haur Odontologia	I	80	I	80	II	60	II	40
Eskola Osasuna	I	80	I	80	II	60	II	40
Medikuntza Orokorra	I	80	II	60	II	50	II	30
Erizaintza Orokorra	I	80	II	60	II	50	II	30
Lan Osasuna	I	80	II	60	II	50	II	30
Emakumeentzako Arreta	II	40	II	20	II	20	II	20
Odontologia	II	40	II	20	II	20	II	20

(*) Jarduera-eremuko euskaldunen ehunekoa

(**) Unitatearen lehentasun espezifikoa.

(***) Derrigortasun-data duten lanpostuen ehunekoa.

Beraz, Donostiako osasun etxeetako pediatria zerbitzuek dagoeneko euskarazko arreta eskaini beharko lukete, baina jasotako lekukotzen arabera, ez da horrela. Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Osakidetzari azter dezatela Donostiako osasun etxeetako pediatria zerbitzuetan eskaintzen den euskarazko arretaren egoera, eta helaraz diezaiotela txosten hori Donostiako Udalari.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Osakidetzari lehenbailehen zuzendu ditzatela Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II. planak ezarritakoa betetzen ez duten Donostiako osasun etxeetako Lehen Mailako Arretako egoerak, bereziki pediatria zerbitzuetan euskarazko arreta eskaintzeari dagokionez.

Donostian, 2021eko azaroaren 30ean

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea